**EXTRACTO DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS EN EL PLENO ORDINARIO Nº 1/19 DE 31 DE ENERO DE 2019.**

**ACTA**

**1.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR ORDINARIA Nº 6/18 DE 29 DE NOVIEMBRE DE 2018.**

[…]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes no aprobar la redacción del Acta de la Sesión anterior.

Preguntando, si algún miembro de la Corporación tiene que formular alguna observación a los acuerdos del acta de la sesión anterior y no habiéndolas.

Se somete a votación la ratificación del acta conteniendo los acuerdos adoptados en la sesión anterior.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, ratificar el Acta de la sesión anterior nº 6/18 de 29 de noviembre, sin observaciones.

**PARTE RESOLUTIVA.**

**2.- DAR CUENTA DEL DECRETO Nº 17/2019, DE 14 DE ENERO MEDIANTE EL QUE SE APRUEBA EL PRESUPUESTO MUNICIPAL PRORROGADO PARA EL EJERCICIO 2019.**

El Presidente leyendo el enunciado del asunto del orden del día, dice que es dar cuenta y ya se ha dado cuenta.

**3.-DAR CUENTA DEL INFORME DE EVALUACIÓN DE LA ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA CORRESPONDIENTE AL PRESUPUESTO MUNICIPAL DEL EJERCICIO 2019.**

El Presidente da lectura al enunciado del asunto y pasa al siguiente, diciendo que ya se ha dado cuenta.

**4.- DAR CUENTA DEL PERIODO MEDIO DE PAGO GLOBAL A PROVEEDORES CORRESPONDIENTE AL CUARTO TRIMESTRE DEL EJERCICIO 2018.**

El Presidente tras leer el enunciado del punto y decir que ya se ha dado cuenta continúa con el orden del día dando lectura al siguiente punto.

**5.-APROBACION, SI PROCEDE, DEL INCREMENTO DE LAS RETRIBUCIONES DEL PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA EN BASE AL ART. 50.6 DE LA NORMA FORAL 10/2003 DE 2 DE DICIEMBRE PRESUPUESTARIA DE LAS ENTIDADES LOCALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA.**

[…]

La propuesta presentada al pleno por la Comisión Especial de Cuentas e Informativa de Hacienda, Patrimonio, Régimen Interior y Personal nº1/19 de 23 de enero, a la vista de los informes que obran en el expediente es, por mayoría simple de concejales, seguir la recomendación indicada por Eudel e incrementar con efectos desde el 1 de enero de 2019 las retribuciones del personal un 2,25%.

Del contenido del informe de Secretaria-Intervención nº 5/2019, se conoce que si se pretende incrementar las retribuciones del personal el 2,25% aprobado por el Real- Decreto ley 24/2018 de 21 de diciembre, desde el 1 de enero y del 0,25% a partir del 1 de julio, si se

cumplen las condiciones, que es la recomendación de Eudel habrá que tramitar y aprobar, al menos una modificación parcial del Presupuesto Municipal 2019 prorrogado, en concreto el capítulo I de Gastos, Anexo de Personal, Norma Municipal y demás documentos presupuestarios reguladores de las retribuciones de los empleados municipales, conforme a la regulación que se contiene en la Norma Foral 10/2003, presupuestaria de las Entidades Locales.

D. Joseba Andoni Llaguno Hurtado portavoz de Bildu propone y Dª Mamen Etxebarria Berasaluze, portavoz de E.A.J.- P.N.V. se adhiere a la propuesta, de que se apruebe en este Pleno, que con efectos desde el 1 de enero de 2019, con carácter provisional, la subida del 1,75% y los ajustes necesarios en el presupuesto prorrogado se realicen por el Presidente.

Y, que se inicie un expediente de modificación del capítulo primero de gastos de personal del presupuesto 2019 y la documentación que le acompaña para poder aprobar la subida aprobada por el Real Decreto-Ley 24/2018 de 21 de diciembre, para aprobar por el Pleno.

Sometida a votación la nueva propuesta, distinta del dictamen de la Comisión, se acuerda por unanimidad de los asistentes su aprobación.

**6.-APROBACION, SI PROCEDE, DE LA PRORROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ASOCIACIÓN DE DESARROLLO RURAL ADR ENKARTERRIALDE Y LOS AYUNTAMIENTOS DE ARTZENTALES, ABANTO-ZIERBENA, GALDAMES, MUSKIZ Y SOPUERTA PARA EL DESARROLLO DEL PLAN ESTRATEGICO DE LA VIA VERDE MONTES DE HIERRO.**

[…]

Se acuerda por mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación:

Aprobar la prórroga del Convenio de Colaboración entre la Asociación de Desarrollo Rural ADR Enkarterrialde y los Ayuntamientos de Artzentales, Abanto-Zierbena, Galdames, Muskiz y Sopuerta para el desarrollo del Plan Estratégico de la Vía Verde de Montes de Hierro.

Autorizar al alcalde- presidente para la firma del Convenio.

**7.-APROBACION, SI PROCEDE, DEL RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE VARIAS MERCANTILES POR FACTURAS PRESENTADAS SIN EXISTIR PREVIO CONTRATO.**

[…]

Se acuerda por mayoría simple, mayor número de votos a favor de los concejales asistentes, declarar la existencia de crédito, reconocer la obligación económica frente a los terceros y aprobar las facturas presentadas […]

**8.- APROBACION INICIAL, SI PROCEDE, DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA REPOSICION DE CASERIOS Y EDIFICACIONES RESIDENCIALES EN EL SUELO NO URBANIZABLE**

[…]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación:

Aprobar inicialmente, el texto de la "Ordenanza reguladora de la reposición de caseríos y edificaciones residenciales en suelo no urbanizable" y someterlo al trámite de información

pública y audiencia a los interesados, mediante la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de Anuncio con el acuerdo de aprobación inicial, para la presentación de sugerencias y reclamaciones durante el plazo de treinta días.

De no presentarse alegaciones durante el trámite de información pública, el acuerdo hasta entonces provisional se entenderá elevado a definitivo automáticamente. Si se presentasen alegaciones, se deberá someter a nuevo acuerdo plenario la resolución de las alegaciones presentadas y la aprobación definitiva del texto de la ordenanza.

Una vez sea definitivo el acuerdo de aprobación ahora provisional, se publicará el texto íntegro de la Ordenanza en el Boletín Oficial de Bizkaia, entrando en vigor una vez hayan transcurrido quince días contados desde el siguiente al de la publicación.

**9.- APROBACION INICIAL, SI PROCEDE, DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL ESTABLECIMIENTO DE “CHABOLAS” Y CASETAS DE APEROS PARA USOS AGROPECUARIOS NO PROFESIONALES EN SUELO NO URBANIZABLE.**

[...]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación:

Aprobar inicialmente, el texto de la “Ordenanza reguladora del establecimiento de “chabolas” y casetas de aperos para usos agropecuarios no profesionales en suelo no urbanizable” y someterlo al trámite de información pública y audiencia a los interesados, durante el plazo de treinta días, mediante la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de anuncio del acuerdo de aprobación inicial, para la presentación de sugerencias y reclamaciones.

De no presentarse alegaciones durante el trámite de información pública, el acuerdo hasta entonces provisional se entenderá elevado a definitivo automáticamente. Si se presentasen alegaciones, se deberá someter a nuevo acuerdo plenario su resolución y la aprobación definitiva.

Una vez sea definitivo el acuerdo de aprobación se publicará el texto íntegro de la Ordenanza en el Boletín Oficial de Bizkaia, entrando en vigor una vez hayan transcurrido quince días, contados desde el siguiente al de la publicación.

**10.- DAR CUENTA DE LA DECLARACIÓN OFICIAL DE LA CIFRA DE POBLACIÓN A 1 DE ENERO DE 2018.**

[...]

Dada cuenta se dan por enterados.

**11.- DAR CUENTA DE LA PARTICIPACION E IMPLICACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA A LO LARGO DE LA CAMPAÑA DE LA SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD 2018.**

[...]

Dada cuenta se dan por enterados

**12.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA PRÓRROGA DEL PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA (2013-2017) HASTA QUE FINALICE EL NUEVO PLAN (2018-2022)**

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes: Aprobar la prórroga del Plan de Normalización del uso del Euskera 2013-2017 hasta que finalice el nuevo plan 2018-2022.

**PARTE DEDICADA A CONTROL.**

**13.- DAR CUENTA SUCINTA DE LAS RESOLUCIONES DICTADAS DESDE LA ÚLTIMA SESION PLENARIA.**

[…]

Dada cuenta se dan por enterados.

**FUERA DEL ORDEN DEL DIA.**

Y una vez concluidos los asuntos del orden del día y antes de pasar al turno de ruegos y preguntas.

El alcalde- presidente en nombre del grupo independiente, solicita la inclusión de una moción en el orden del día de la sesión, por razón de urgencia y comienza a dar lectura a la moción.

*"Moción de urgencia que presenta el grupo independiente AEI de este Ayuntamiento, para ser tratada y en su caso, aprobada, por el pleno municipal del día 31 de enero de 2019.*

*1º Dado que hasta este momento hay algunas Asociaciones y Comisiones de fiestas de este municipio, que todavía no han cobrado las asignaciones en modo de subvenciones, aprobadas en su día por este pleno municipal y que después del tiempo transcurrido y que han venido tratando de justificar documentalmente varias veces durante estos meses ante esta Administración Municipal y que unas veces por dificultades para conseguir la documentación pertinente para justificar la subvención y otras por presentadas fuera de plazo debido a las mencionadas dificultades al día de hoy algunas no han cobrado para poder pagar los contratos firmados para realizar los eventos que tienen programados y ya realizados y que en algunos casos vienen siendo apercibidos de que van a embargar a los firmantes de los contratos y esta situación es tremendamente decepcionante para el Ayuntamiento y para las comisiones y asociaciones.*

*Entendemos que la colaboración que prestan a este pueblo las comisiones y asociaciones para la organización de fiestas y eventos lúdicos y etc, para disfrute de nuestro pueblo y visitantes es de agradecer y por tanto se les deben abonar de inmediato las cantidades que les faltan de cobrar para completar las subvenciones que tienen concedidas y aprobada por el pleno de este Ayuntamiento según la normativa a tales efectos.*

*2º Por otra parte, dado que este año se celebra el bicentenario del nacimiento del famoso literato D. Antonio de Trueba y de la Quintana, el llamado Antón el de los cantares y que se encuentran en nuestro pueblo de Sopuerta, las tierras y el caserío de sus padres en el barrio de Santa Gadea, donde vivió hasta la edad de 14 años y que actualmente todavía tiene una placa honorífica puesta por la Diputación Foral y las Juntas Generales de Bizkaia en el año 1819, porque además de un famoso literato Internacional, las Juntas Generales de Bizkaia le nombraron cronista y Archivero del Señorío de Bizkaia y padre de la provincia. Y en la plaza del ensanche de Bilbao le pusieron en el año 1895 el todavía actual monumento realizado por Mariano Benlliure y murió en Bilbao en el año 1889.*

*Por tanto, este pueblo de Sopuerta podría unirse a esta efemérides del bicentenario de su nacimiento, para honrar a este famoso vecino y para inmortalizar su nombre una vez más,*

*poniendo con su nombre el paseo Antonio Trueba a la llamada actualmente recta de Santa Ana y que actualmente no tiene ninguna denominación oficial y que pase a denominarse oficialmente "Paseo de Antonio de Trueba".*

*Para dar una idea del cariño que tenía Antonio de Trueba a las tierras y el caserío donde vivió con sus padres en Sopuerta, lo decía con un romance:*

*No puede menos de ser un bribón de siete suelas, el que no tiene apego al pueblo donde ha nacido, donde se ha criado y donde están vivos o muertos sus padres (1894). La tierra donde uno ha nacido, lo mismo que las personas que uno quiere, nunca parecen más hermosas que cuando se han perdido o se está lejos de ellas."*

[…]

El Presidente, solicita la inclusión de un asunto fuera del orden del día, por razón de urgencia, concluido el orden del día fijado por el propio alcalde –presidente, que es el órgano competente para someter a votación del pleno, su declaración de urgencia e inclusión en el orden del día de la sesión.

El presidente somete a votación la inclusión fuera del orden del día, de la moción leída, por razones de urgencia.

Votos a favor: 5 de la AEI.
Votos en contra: ninguno
Abstenciones: 6; 4 de Bildu y 2 del EAJ-PNV.

Se acuerda por la mayoría simple de mayor número de votos a favor de los concejales asistentes, incluir el asunto fuera del orden del día.

**14.- MOCION DE URGENCIA QUE PRESENTA EL GRUPO INDEPENDIENTE AEI PARA INCLUIR EN EL PLENO.**

[…]

Finalmente, la propuesta de urgencia que se somete a la votación del pleno es:

Modificar el callejero municipal para que la actualmente denominada recta de Santa Ana, sin nombre oficial, pase a ser nombrada "Paseo de Antonio Trueba".

Se acuerda por unanimidad de los asistentes:

Aprobar que la recta de Santa Ana pase a denominarse oficialmente Paseo de Antonio Trueba.

**RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**15.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**2019ko URTARRILAREN 31ko 1/19 OHIKO OSOKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA**

**AKTA**

**1.- 2018ko AZAROAREN 29ko 6/18 OHIKO BILERAREN AKTA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.**

[…]

Bertaratuek aho batez erabaki dute aurreko bileraren akta ez onartzea.

Galdetu da ea Korporazioko kideren batek oharrik egin nahi duen aurreko saioaren aktako erabakien inguruan, eta inork ez du ezer esan.

Aurreko saioan hartutako erabakiak jasotzen dituen akta berretsi ala ez bozkatu dute.

Bertaratuek aho batez erabaki dute azaroaren 29ko 6/18 bileraren akta berrestea, oharrik gabe.

**EBAZPENAK.**

**2.- 2019 EKITALDIRA LUZATUTAKO UDAL-AURREKONTUA ONARTZEN DUEN URTARRILAREN 14ko 17/2019 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Udalburuak gai-zerrendako esaldia irakurri du, eta esan du esaldi hori irakurrita jada eman dela dekretuaren berri.

**3.- 2019 EKITALDIKO UDAL-AURREKONTUAREN EGONKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Udalburuak gai-zerrendako esaldia irakurri du eta hurrengora igaro da, esanez jada eman dela txostenaren berri.

**4.- 2018 EKITALDIKO LAUGARREN HIRUHILEKOAN HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO ALDIAREN BERRI EMATEA.**

Udalburuak puntu honen esaldia irakurri du eta jada horren berri eman dela esan du, eta gai-zerrendarekin aurrera egin du, hurrengo puntua irakurriz.

**5.ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, SOPUERTAKO UDALEKO LANGILEEN ORDAINSARIAK AREAGOTZEA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI-ERAKUNDEEN AURREKONTUEI BURUZKO ABENDUAREN 2ko 10/2003 FORU ARAUAREN 50.6 ARTIKULUAN OINARRITUTA.**

[…]

Ogasunaren, Ondarearen, Barne Erregimenaren eta Langileen arloko Kontu eta Informazio Batzorde Bereziak (urtarrilaren 23ko 1/19 batzordea) espedientean jasotako txostenak ikusirik eta zinegotzien gehiengo soilaz, Osoko Bilkurari proposatu dio Eudelek emandako gomendioari jarraitzea eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera langileen ordainsariak % 2,25 areagotzea.

Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzaren 5/2019 zenbakiko txostenaren arabera, langileen ordainsariak % 2,25 areagotu nahi badira urtarrilaren 1etik aurrera (abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuak onartutako moduan) eta % 0,25 uztailaren 1etik aurrera, eta baldintzak betetzen badira, gutxienez 2019ko udal-aurrekontu luzatuaren aldaketa partzial bat izapidetu eta onartu beharko da (hori gomendatzen du Eudelek); zehazki, gastuen I.

kapitulua, langileen eranskina, udal-araua, eta udal-langileen ordainsariak arautzen dituzten gainerako aurrekontu-agiriak, bat etorriz Toki-erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauarekin.

Bilduko bozeramaile Joseba Andoni Llaguno Hurtadok proposatu du osoko bilkura honetan onar dadila 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainsariak behin-behinean % 1,75 areagotzea eta udalburuak aurrekontu luzatuan beharrezko aldaketak egitea, eta EAJko bozeramaile Mamen Etxebarria Berasaluzek bat egin du proposamenarekin.

Horrez gain, proposatu du 2019ko aurrekontuaren langile-gastuen lehenengo kapitulua eta harekin batera doan dokumentazioa aldatzeko espediente bat abia dadila, abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako areagotzea onetsi ahal izateko.

Proposamen berriaren inguruan bozkatu dute (Batzordearen irizpenaz bestelakoa da), eta bertaratuek aho batez erabaki dute proposamena onartzea.

**6.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ENKARTERRIALDE LANDA GARAPENEKO ELKARTEAK ETA ARTZENTALES, ABANTO ZIERBENA, GALDAMES, MUSKIZ ETA SOPUERTAKO UDALEK BURDINMENDI BIDE BERDEAREN PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA.**

[…]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak hau erabaki du:

Onartzea Enkarterrialde Landa Garapeneko Elkarteak eta Artzentales, Abanto Zierbena, Galdames, Muskiz eta Sopuertako Udalek Burdinmendi Bide Berdearen Plan Estrategikoa egiteko sinatutako lankidetza-hitzarmenaren luzapena.

Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko baimena ematea.

**7.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ZENBAIT MERKATARITZA-ENPRESARI KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO ONARTZEA, AURKEZTUTAKO FAKTURENGATIK, ALDEZ AURRETIK KONTRATURIK EGON EZ ARREN.**

[…]

Erabaki da, gehiengo soilez (bertaratutako zinegotzien aldeko botoen gehiengoaz), kreditua badagoela adieraztea, hirugarrenekiko betebehar ekonomikoa aitortzea eta aurkeztutako fakturak onartzea […]

**8.- HASIERA BATEAN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, LURZORU URBANIZAEZINEAN BASERRIAK ETA BIZITEGI-ERAIKINAK BIRJARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA.**

[…]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak hau erabaki du:

Hasiera batean onartzea lurzoru urbanizaezinean baserriak eta bizitegi-eraikinak birjartzea arautzen duen udal-ordenantzaren testua, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia ematea, hasieran onartzeko erabakiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesdunek iradokizunak eta erreklamazioak aurkez ditzaten hogeita hamar eguneko epean.

Jendaurreko aldian alegaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen akordioa automatikoki behin betiko bihurtuko da. Alegaziorik aurkezten bada, osoko bilkuran ebatzi beharko dira, eta ordenantzaren testua behin betiko onartu.

Behin-behinean onartzeko akordioa behin betiko bihurtzen denean, ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarrean sartuko da argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hamabost egun igarotakoan.

**9.- HASIERA BATEAN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, LURZORU URBANIZAEZINEAN NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA EZ-PROFESIONALERAKO TXABOLAK ETA LANABESENTZAKO ETXOLAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA.**

[…]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak hau erabaki du:

Hasiera batean onartzea Lurzoru urbanizaezinean nekazaritza eta abeltzaintza ez-profesionalerako txabolak eta lanabesentzako etxolak jartzea arautzen duen udal-ordenantzaren testua, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia ematea, hasieran onartzeko akordioaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesdunek iradokizunak eta erreklamazioak aurkez ditzaten hogeita hamar eguneko epean.

Jendaurreko aldian alegaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen akordioa automatikoki behin betiko bihurtuko da. Alegaziorik aurkezten bada, osoko bilkuran ebatzi beharko dira, eta ordenantzaren testua behin betiko onartu.

Behin-behinean onartzeko akordioa behin betiko bihurtzen denean, ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarrean sartuko da argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hamabost egun igarotakoan.

**10.- 2018ko URTARRILAREN 1eko BIZTANLERIA KOPURUAREN ADIERAZPEN OFIZIALAREN BERRI EMATEA.**

[…]

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

**11.- SOPUERTAKO UDALAK MUGIKORTASUNAREN 2018ko EUROPAKO ASTEAREN KANPAINAN PARTE HARTU DUELA BERRI EMATEA.**

[…]

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

**12.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2013-2017ko PLANA LUZATZEA 2018-2022ko PLAN BERRIA AMAITU ARTE.**

[…]

Bertaratuek, aho batez, hau erabaki dute: onartzea Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2013-2017ko Plana luzatzea 2018-2022ko plan berria amaitu arte.

**<u>KONTROLA.</u>**

**13.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI LABUR EMATEA.**

[…]

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

**GAI-ZERRENDATIK KANPO.**

Gai-zerrenda amaitu ondoren, eta galde-eskeen txanda ireki aurretik.

Alkate-udalburuak, talde independentearen izenean, eskatu du mozio bat premiaz sar dadila saioaren gai-zerrendan, eta mozioa irakurtzen hasi da.

*"Udal honetako AEI talde independenteak premiazko mozio hau aurkezten du, 2019ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran aztertu eta hala badagokio onar dadin.*

*1. Gaur-gaurkoz, herri honetako jai-elkarte eta -batzorde batzuek oraindik ez dituzte kobratu osoko bilkura honek bere garaian onartu zituen diru-laguntzak. Denbora igaro da, eta hil hauetan behin baino gehiagotan agiri bidez justifikatu nahi izan dute hori udal-administrazio honen aurrean: batzuetan, diru-laguntza justifikatzeko dokumentazio egokia lortu ezin zelako; eta, besteetan, epez kanpo aurkeztu zirelako. Bada, aipatutako zailtasun horiek direla medio, elkarte eta batzorde batzuek gaur-gaurkoz ez dute kobratu programatuak eta eginak dituzten ekitaldiak aurrera eramateko sinatutako kontratuak ordaindu ahal izateko diru-laguntzarik. Kasu batzuetan, gainera, ohartarazi da kontratuen sinatzaileei ondasunak bahituko dizkietela, eta egoera hori benetan etsigarria da udalarentzat eta batzorde eta elkarteentzat.*

*Gure iritziz, jaiak, aisialdiko ekitaldiak eta abar antolatzeko batzorde eta elkarteek eskertzeko moduko lana egiten dute gure herritarrek nahiz bisitariek goza dezaten, eta, horregatik, berehala ordaindu behar zaizkie kobratzeko dituzten zenbatekoak, Udal honetako Osoko Bilkurak araudiaren arabera eman eta onetsi dizkien diru-laguntzak osatu ahal izateko.*

*2. Bestalde, aurten berrehun urte beteko dira Antonio de Trueba y de la Quintana idazle ospetsua jaio zela, 'Antón el de los cantares' deiturikoa, zeina 1889an hil baitzen, Bilbon. Haren gurasoen lurrak eta baserria Sopuertako gure herrian daude, Santa Gadea auzoan; han bizi izan zen idazlea 14 urtera arte. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiek ohorezko plaka bat jarri zioten 1819an (eta oraindik ere bere lekuan dago), nazioartean idazle ospetsua izan zelako; horrez gain, Bizkaiko jaurerriko kronikagile eta artxibozain izendatu zuten, eta probintziako aita. Bestalde, Bilboko Zabalgune plazan, 1985ean, Mariano Benlliurek egindako monumentu bat jarri zioten.*

*Horren harira, Sopuertako herri honek bat egin lezake idazlearen jaiotzaren berrehungarren urteurrenarekin, herritar famatu hura ohoratzeko eta haren izena beste behin hilezkortzeko. Hain zuzen, 'Antonio Trueba pasealekua' izena jarri nahi zaio Santa Anako zuzenari, gaur egun ez baitu izen ofizialik; hala, 'Antonio Trueba pasealekua' izendatuko litzateke ofizialki.*

*Antonio Truebak erromantze batean adierazi zuen Sopuertan gurasoekin bizi izan zen lurrei eta baserriari zien maitasuna:*

*"No puede menos de ser un bribón de siete suelas, el que no tiene apego al pueblo donde ha nacido, donde se ha criado y donde están vivos o muertos sus padres (1894). La tierra donde uno ha nacido, lo mismo que las personas que uno quiere, nunca parecen más hermosas que cuando se han perdido o se está lejos de ellas".*

[…]

Udalburuak eskatu du gai-zerrendatik kanpoko gai bat sar dadila premiaz, alkate-udalburuak berak ezarritako gai-zerrenda amaitu ostean. Alkate-udalburuak du eskumena gaia premiazkoa den eta gai-zerrendan sartu behar den ala ez erabakitzea Osoko Bilkuraren esku uzteko.

Udalburuak bertaratuei eskatu die bozka dezatela irakurritako mozioa gai-zerrendara premiaz sartu ala ez.

Aldeko botoak: 5, AEIrenak
Kontrako botoak: bat ere ez
Abstentzioak: 6; 4 Bildurenak eta 2 EAJrenak

Erabaki da, bertaratutako zinegotzien aldeko botoen gehiengo soilaz, gaia gai-zerrendan sartzea.

**14.- AEI TALDE INDEPENDENTEAK GAI-ZERRENDAN SARTZEKO AURKEZTEN DUEN PREMIAZKO MOZIOA.**

[…]

Azkenik, honako hau da osoko bilkuran bozkatzeko aurkezten den premiazko proposamena:

Udalerriko kale-izendegia aldatzea eta gaur egun izen ofizialik ez duen Santa Anako zuzena aurrerantzean *Antonio Trueba pasealekua* izendatzea.

Bertaratuek aho batez erabaki dute:

Onartzea Santa Anako zuzena ofizialki *Antonio Trueba pasealekua* izendatzea.

**GALDERAK ETA ESKAERAK.**

**15.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**